

Isilduaren hitza, bakarrizketan

Toti Martínez de Lezeak adineko etxeoandre baten gorabeherak dakartzatza 'Amamaren grafitiak' liburuan • 2005ean argitaratutako 'Los grafitis de mamá' liburua jarraipena da

Julen Aperribai Donostia

Gizartearen begietara, itzalpean geratzen da sarritan etxeoandreen eguneroko lana. Fikzio bidez, eta umore ukitua galduta gabe, Toti Martínez de Lezeak argitaratutako eraman nahi izan du hori, *Amamaren grafitiak* liburuan (Erein). Atzo aurkeztu zuen, Donostiako udal liburutegiko sotoan.

Martínez de Lezeak sutsuki defendatu zituen etxean lan egiten duten emakumeak, eta bere burua ere multzo zabal horren barruan sartu zuen. Zer ikusgarritasun gutxi ematen zaien salatu zuen: «Ez gaude hedabideetan; ez publizitatean, ez filmetan... ez bada, behintzat, bigarren mailako rol bat antzetzeko». Adin nagusiko emakumeak izan zituen hizpide, bereziki. Lanari eskainitako bizitza oso baten ostean, erretiroa iritsita ere, ordura arteko eginbeharrak mantendu soilik ez, areagotu ere egin zaizkide askori, idazlearen arabera. Horren adibidetzat jarri zuen biloben zaintza lanak haien esku uzten direla.

Horrekin batera, zahartzaroari lotutako rol jakin batzuk kritikatu zituen: «Behin erretiratutakoa, alde batera uzten zaituzte. Baina erretiroak esan nahi du pertsona edo enpresa batentzat hileroko soldata baten truke lan egiteari utzi diozula, ez besterik.



2005eko *Los grafitis de mamá* liburuari jarraipena eman dio Martínez de Lezeak. JAIZKI FONTANEDA / ARGAZKI PRESS

Pilatutako jakintza eta esperientzia guztia alferrik galtzen da». Horren aurrean, nabarmendu zuen asko direla era askotako ekintzetan aktibo jarraitzen duten emakume erretiratutak.

Martínez de Lezeak adineko emakume baten gorabeherak eraman ditu *Amamaren grafitiak* liburura. Autobiografikotik ba ote duen zehaztu gabe, bere nahiz inguruko gertakizune-

tan oinarritu dela aitortu du. Emakume horren bakarrizketa bidez kontaktzen da istorioa.

2005ean kaleratu zuen *Los grafitis de mamá* liburua jarraipena da. Hamabi urte pasatuta, orduan ama zena amama da egun, eta garaiko beste hainbat aldaketetara ere egokitu beharko du. 2005ean gazteleraz kaleratutako liburua jarraipena gazteleraz ez ezik, euskaraz ere egin

dute, Miren Arratibel itzultzailearen lanari esker.

Emakumei eta adinekoei komunikabideetan ematen zaien tratuaren inguruko begirada kritikoa eskaini nahi izan du Martínez de Lezeak, baina umorez landu du. «Kritika egin daiteke umorea erabiliz, eta, batzuetan, eraginkorra izan daiteke diskurtso potoloak botatzea baino».

52 film laburrek eman dute izena Kimuak proiektuan

ZINEMA • Asteazkenean itxi zen Kimuak egitasmoaren 2017ko aldia izena emateko epea, eta, guztira, 52 film aurkeztu dira. Ekainaren 12an bilduko da epaimahaia, eta egun horretan bertan iragarriko dute aurkeztutako arten zein film laburrek osatuko duten aurtengo katalogoa.

'Europa Transit'-en azpizdatziak eskura jarri dituzte sarean

ZINEMA • Europako hamar hiritako gerra edo gatazken inguruko dokumentalek osatzen dute *Europa Transit* bilduma. Iaz aurkeztu zituzten, D2016 egitasmoaren barruan. Filmazpitek, euskaraz azpizdatzitako filmak katalogatzen dituen plataformak, eskura jarri ditu dokumental horien guztien azpizdatziak bere webgunean.

Mendeurrena du Bizaren 'Biderakoa Baztanen' lanak

ARTEA • Javier Ziga pintoreak *Biderakoa Baztanen* koadroa egin zuela ehun urte direla eta, egitarau berezia osatu dute Nafarroako Museoan. Bisita gidatuak izango dira, bihar eta ekainaren 11n, Pello Fernandezek eskutik. Gainera, lanaren inguruko azalpenak emango ditu Ignacio Jesus Urritzelkik, hurrengo asteazkenean.

ASX
Twist your world
Berria

ALDIKAR AUTOAK
Oria etorbidea, 6
LASARTE-ORIA
Tel.: 943-37 65 15

Mitsubishi ASX berria, 15.900 €-tik hasita. CO2 isuria: 119-152 g/km. Kontsumoa: 4,6-5,8 l/100 km.
Argazkiko modelo: ASX 160 MPI Motion. Eskaintza honek 2017ko ekainaren 30era arte balio du. ASX 160 MPI Challenge modeloaren prezioak Penintsularako eta Balearretarako balio du (sustapenak bere barmean hartzen du 5 urteko bermea edo 100.000 km, BEZa, IM eta garraioa). Eskaintza hau bezero partikularrentzat da, gubuzien 12.500 € Santander Consumer EFC SA bidez finantzazten dutenentzat, gubuzien 48 hilabetean eta gubuzien 36 hilabeteko iraupenarekin; ez da bateragarria beste finantza eskaintza batzuekin. Finantza erakunde bakoitzak aztertu eta onartu behar du finantzabidea. 24 orduko laguntza Europan. Mitsubishiharen gomendioa: **REPOL** lubrifikagailua.

100th Anniversary
A century of innovation
Mitsubishi automobiles

MITSUBISHI MOTORS
Drive@earth